

EDER ARTEAN (BOLIBAR)

Egille ederren eskuak ezin dabe eder ez danik sortu. Guk beraz naiz Kosmos naiz Ludia deitu, ederra dozu naita ez; oldozkun eta pentsamentu au nik sarri erabilli oi dot bu-ruan, batez be ortuko zugatz arte liluragarrian.

Aurten, eta noiz ez?, Aste Santuz, esaterako, ainbat kotxe jentezbete abiatu zan euskal erritik kanpo, neuk be egin'dodaz egotaldiak jaioter-ritik urrin samar, baiña ez dot aurkitu neure jaiot-lurra eta etxea baiño obarik. Badau indar apartekoa jaiota laster artu genduan lur-arnaseak bai osasunerako eta bai bizipoze-rako.

Baiña ezagutzen ez dogu-lako, nik uste, zer barri baten billa goaz etxetik urrun, bear geunkena eta geiago geure aterpean euki-rik. Egia da, olako etxekoagaz gaiñ kanpokoak be txastatu nai ditugu. Alan be, lenengo etxekoa ta gero bestek.

Eder-azale dozu gizasemea, eta eder edo atsegin-billa doatzu kanpora be. Nun alan be edertasun geia-go? Ez noa arren aurka, ori ez baita saiaketa biurria. Nik au diñotsut, ori len-lenen beintzat etxean billatu bear dala. Orretaz ez da makala gure ingurua.

Lengo baten, opor-eguna zalata, Oiz-perantza ibi-llaldi bat asmatu gendun. Oiz-apian Urretxu, Ziortza, Bolibar eta Mibeko aizez igurtzi gura genduzan birikiak, eta goizeko bederatziak inguruan Urretxu-rantza artu genduan mendizale bik. Goitik zan ordu-ko Febu, egun eder bat asiran. Mide-kurutzak emen Muniketara eskoi, Mendatara ezkerrez guk zuzen-zuzen aurrera, Oiz-azpitik zear; laster giñen, troka zear, oker-unez betean, ikustoki lilluragarri baten. Oraintsu arte illuna zan toki au, gaur oso argia dozu, piñu illun barik; aurrez-aurre daukaguz Albiz, Men-data, Gernika eta Kantauri inguruko erri zoragarriak, eder be eder, Bizkargi ta Atxerre ur dirala. Atsed-

leku au ederragotzeko, Jainko-zale danarentzat batez be, Andra Mariaren Ikono bat daukazu bide-ertzean, mosai-kotan; au Agur Mariz otoiztu ondoren, aurrera gu. Pizkat ibilliaz berton agiri jakun, es-kumatik, kotxez be San Kris-tobalera igoteko bidea.

Berantza, Munitibar aldera, bide ederrez, piñadi zarratu-zarratuz zear Pausu bi eta Ganbe berton; etxe bazuk, so-loak eta lenagoko Erri-ikastola oraindik zutik. Kotxe batzuk agiri dira, jentea lanean, bei eta ardi... Beerago goazala, Gerrikaitz'ko eleizea ezkerre-tik. Eskumatik Munitibar, ber-ton eleizea, frontoia etxe pi-lloa eta Gernikarako bidea, eta

Aulesti'rantz ondoan jatetxeak eta abar dana eder eta begi-betegarri. Guk ortxe eskumatik artu eta aldatz-gora Markiñarantza doa bidea.

Aurrez-aurre daukagu Oiz mendia, ez aundi, ez txiki, baiña aberez eta ospez betea. Apur bat jatxirik, esker-aldera. Betik gora jagi bide bazaltxo batez, Madalen auzune gaintxokora daroa gizaseme jato-rrez jantzia bein edurra zala, Undurratik ara ezkon-du, an laborari bizi ta ildako Larrakoetxea baten ille-tetan izan nintzala dakart gogora, andik igarotzean.

An gorago, egoaldetik Oiz'ek etxe soillak eta mordotxoak agiri ditu, orkotxea zan nire aita jato-rriz, baita gaur munduan naikoa zabaldua dabilzan Onaindiar ugariak be jatorria antxe dabe: On Alberto Onaindia'k egin eban gerra-aurretik abizen argi orren jatorria.

Jatxi gara beraiño trokaz beste-aldetik Ziortza do-gula. Bolibar erria. Au ezker itxita, pizkat aurrera jorik, Ziortza'ra garoazan bidean gorantza artu dogu. Aspaldiko urteetan entzutetsu izandako Ziortza ori gain-gaiñean daukagu eder baizen jator, Oizmendia-ren babespe gozoan. Monastegiko ortu ta kanposan-tu orma ondolik eleiz-zutoñak aurrez-aurre genduza-